

Kataluniako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzak eta Hizkuntz Normalizaziorako Partzuergoak ikusirik talde, elkarre eta erakunde ezberdinek beraien hizkuntz normalizazio maila ebaluatzeko tresnak falta zizutela, Indexplà programa sortzea erabaki zuten. Indexplà Excel programa informatikoaren formatoa du, kalkulu orri gisa aurkezten da. Programa hau erakunde guztientzat balioko duen tresna sinple eta praktikoa da, hizkuntz normalizazio planen aurrerapenak ebaluatzeko guztiz egokia.

INDEXPLÀ: ERAKUNDEEN HIZKUNTZ KUDEAKETARAKO PLAN ETA AKORDIOEN SEGIMENDU ETA EBALUAZIO PROGRAMA*

Assumpta Escolà
Toni Mataix
Jaume Urgell

Consorci per a la Normalització Lingüística

Joan Solé i Camardons

Direcció General de Política Lingüística

Alfons Duarte

Hizkuntz normalizazio planak dira Hizkuntz Normalizaziorako Partzuergoak (CPNL) eta hizkuntz zerbitzuek, oro har, erakundeei (publiko nahiz pribatuei, irabazi asmodunak nahiz gabeiei) eskaintzen dieten zerbitzua burutzeko erabiltzen duten tresna. Hitz gutxitan esanda, hizkuntz beharren kudeaketa da. Plan horiek erakundearen asmoak (hau da, helburuak) jasotzen dituzte, egin beharreko iharduketak zehaztu, eta ebaluazio sistematik aurreikusi. Zentzu honetan hizkuntz normalizazio teknikarien (HNT) lana hau da: izaera desberdineko erakundeetan hizkuntz kudeaketa planen diseinua, segimendua eta ebaluazioa burutzea.

Prestakuntzaren eta baliabideen ikuspegitik ikusita, hizkuntz zerbitzuek badituzte zenbait elementu honako lan hauek burutzeko: analisi sektorialak, hizkuntz premien detekzioa, planen diseinua eta abar. CPNL, ordea, konturatu zen hutsuneak bazirela, hau da, erakunde batek une jakin batean duen hizkuntz normalizazio maila objektiboki neurtzea ahalbide-

tuko luketen tresnak falta zirela, eta baita gure eskuhartzearen ondorioz gertatutako bilakaera neurtzeko ere.

1995eko martxoan CPNLk lan talde berri bat jarri zuen martxan, goian aipatutako premia hori asetuko lukeen tresna sortzeko asmoz. Lan hori prozesu zabalago batean kokatzen da: instituzioaren kudeaketa tresna eta metodoen modernizazio prozesuaren barnean, alegia. Lan taldeko partaideak CPNLko hainbat teknikari eta hizkuntz politikako zuzendaritza nagusiko teknikari bat izan dira, eta Alfons Duarte ebaluazio adituaren zuzendaritzapean aritu dira lanean¹. Mintegiak emandako fruitua dugu, hain zuzen ere, Indexplà izeneko eta Excel-en lan liburu formatua duen ebaluazio tresna hori. Artikulu honetan programaren funtzionamendua, ezaggarri nagusiak eta bere erabilera azalduko ditugu. Alegiazko erakunde batean egindako aplikazio adibide bat ere aurkezten dugu.

INDEXPLÀ-REN FUNTZIONAMENDUA

Indexplà erakunde jakin baten hizkuntz normalizazio maila ebaluatzea ahalbidetzen duen tresna da. Erakunde mota desberdinetan aplikatzeko moduan diseinatu da: enpresa pribatuetan, administrazio publikoan edo haren menpean dauden erakundeetan, eta baita elkarten munduko entitateetan ere. Erakunde guztientzat balioko duten aldagai komunak eta baliokideak aukeratu dira, hau da, erakunderik sinpleenetatik hasita konplexuenetaraino balioko dutenak.

Indexplà-ren oinarria faktoreka taldekatutako adierazle sistema bat da. Aukeratutako adierazleek ez dituzte adierazten eduki edo esanahi linguistikoa duten elementu guztiak, adierazleen helburua osotasuna baloratzeko baita, eta horretarako errepresentatibotzat hartzen diren datuetatik abiatzen dira.

Faktore bakoitzak 0 eta 100 arteko balioa du. Bestetik, faktore guztien batezbesteko haztatua (ponderatua) ere atera daiteke, hau da, hizkuntz normalizazio indizea (HNI). Azken balio hori ere 0 eta 100 artekoa da eta erakundearen normalizazio maila orokorra adierazten du. Horrenbestez, katalanaren erabileraren araberako kategoriak ezartzea ahalbidetzen du. Beraz, horri esker jakin daiteke zenbait erakundek gutxieneko normalizazio maila lortu dutela eta bezeroekin nahiz erabiltzaileekin haiek aukeratutako hizkuntzan aritzeko gaitasuna dutela (60 eta 80 arteko HNIA). Bestetik, lan hizkuntza gisa katalana erabiltzen duten erakundeak ere identifikatu daitezke (80 eta 100 arteko HNIA).

Lehen laukian ikusten dira bai Indexplà osatzen duten 34 adierazleak eta bai taldeak egiteko erabiltzen diren faktoreak ere. Finean hizkuntz planifikatzaileok hizkuntz premiak aztertzeke erabiltzen ditugun eremu tradizionalak dira (izan ere, faktore eta adierazleen proposamenaren oinarria dokumentu hau izan zen: *Programa erdua. Nola egin hizkuntz normalizazio programa bat erakunde jakin batean*). Hona hemen faktore bakoitzaren azalpena:

*Oharra: EKB, Indexplà programa hau euskaratzen ari da eta berehala jarriko da salmentan euskararen aldekotako talde, elkarte eta erakunde guztientzat.

1) Mintegiko kideak hauek izan dira: Assumpta Escolà; Toni Mataix, Carme Miró, Carme Piqueras, Joan Solé i Camardons, Jaume Urgell eta Elena Valls.

«Hizkuntz normalizazio planak dira Hizkuntz Normalizazioarako Partzuergoak (CPNL) eta hizkuntz zerbitzuek, oro har, erakundeei eskaintzen dieten zerbitzua burutzeko erabiltzen duten tresna. Plan horiek erakundearen asmoak jasotzen dituzte, egin beharreko iharduketak zehaztu, eta ebaluazio sistemak aurreikusi»

1. Irudia eta errotulazioa: erakundearen identifikazio soziala, errotulazioa eta barne nahiz kanpo adierazleak dira; baita produktu eta zerbitzuen publizitatea eta propaganda ere.

2. Langileen hizkuntz egokitzapena: Langileen edo erakundeko kideen hizkuntz ezagutzek bakoitzaren lanpostuarekin eta lanpostu horren hizkuntz eskakizunarekin duen egokitzapen maila da.

3. Hizkuntz erabilerazko irizpideak: erakundeko ihardueretan hartzen diren hizkuntz irizpideak dira.

4. Kanpo erabilerako dokumentazioa: kanpora begira erabiltzen diren dokumentu inprimatuak dira.

5. Kanpo komunikazioak: erakundeak kanpora begira erabiltzen dituen ahozko eta idatzizko testuak dira.

6. Barne dokumentazio eta komunikazioak: erakundearen barnean erabiltzen diren inprimaki eta bestelako dokumentu estandarizatuak, eta ahozko nahiz idatzizko barne komunikazioak dira.

1. TAULA. INDEXPLÀ-REN FAKTOREAK ETA ADIERAZLEAK

	Adierazleak	1*	2	3	4	5	6
1	1.1 Erakundearen izena gutun paperetan	8		3			
	1.2 Erakundearen errotulurik garrantzitsuena	9		3	3		
	1.3 Ordutegiaren edo informazio baliokidearen errotulua	8		3	2		
	1.4 Barne errotulazio formal eta informala	7		1			2
	1.5 Publizitatea (TB, prentsa, irratia, kartela, liburuska, prospektua)	9		3	6		
	1.6 Poltsa, enbalajea, etiketa, prospektua, kartazala edo baliokidea	9		3	6		
2	2.1 Jende aurrean ez dauden eta testuak idazten ez dituzten langileen egokitzapen portzentaia	9				3	
	2.2 Publikoarekin lan egiten duten langileen egokitzapen portzentaia	6	9			6	
	2.3 Testuak idatzi edo transkribatzen dituzten langileen egokitzapen portzentaia	5	9	3	2	6	6
3	3.1 Erakundean sartzeko katalanaren balorazioa (meritua edo eskakizuna)	2	6	9			
	3.2 a) Egokitzapen hutsunea duten eta ikasten ari diren langileak						
	3.2 b) Katalana ikasteko sustapena edo laguntza langileentzat	1	6	8			
	3.3 Langileen prestakuntza katalanez	1	6	7			
	3.4 Publikoarekiko ahozko harremanetako hizkuntz irizpideak	3		9		6	
	3.5 Idatzizko komunikazioetako hizkuntz irizpideak	2	3	9		5	
	3.6 Barne nahiz kanpoko hizkuntz aholkularitza zerbitzuaren erabilera	2	2	7		3	2
	3.7 Langileen hizkuntz autonomiaren sustapena eremu desberdinetan	1	2	7		2	1

Adierazleak		1	2	3	4	5	6
4	4.1 Izena duen gutun papera	6		3	9	2	
	4.2 Zigilu identifikatiboak edo estandarizatuak	5		2	8		
	4.3 Kanpoan gehien zabaltzen den erabilera edo jarraibide eskuliburua	6		3	9		
	4.4 Faktura, ordainagiria edo baliokidea	4		1	8		
5	5.1 Telefonoan erabiltzen den lehen hizkuntza	6		3		9	
	5.2 Ahozko komunikazioan erabiltzen den lehen hizkuntza	6		3		9	
	5.3 Iharduerarik ezagunenetan erabiltzen den lan hizkuntza	5		2		9	
	5.4 Komunikazioak instituzio publikoekin, pribatuekin eta zerbitzu enpresekin	5				7	
	5.5 Komunikazioak bezeroekin, erabiltzaileekin edo elkartuekin	6		3		8	
	5.6 Komunikazioak hornitzaileekin	4		1		7	
	5.7 Argitalpenak	6		3		9	
6	6.1 Zirkularrak eta arauak			3			9
	6.2 Gai-zerrendak eta bileretako aktak			3			9
	6.3 Barne formulario eta inprimakiak			3			8
	6.4 Bilerak hasteko erabiltzen den hizkuntza			1			7
	6.5 Estatutuak, txostenak, proiektuak, balantzeak, balantze ekonomikoak, aurrekontuak			2			8
	6.6 Testu trataera, datu baseak eta mezuak igortzen dituzten bestelako makinak		3			7	

*Faktoreak

Faktoreak eta adierazleak sakonki aztertu dira mintegian; baita balorazioa eta haztapena (ponderazioa) ere. Beraz, emaitza arbitrarioa izan badaiteke ere, parte hartzaile guztien artean kontsentsuatu da.

Indexplà tresna sinplea da, normalean erakunde baten lanetik ateratzen den informazioa sistematizatu besterik ez baitu egiten. Praktiko da, indizeak homogenizatu egiten dituelako, eta horrek berehalako balorazioa eta konparazioa egitea ahalbidetzen duelako, bai planaren une desberdinen arteko konparazioa (ebaluazio progresiboa) eta bai erakundeen artekoa ere.

Oraindik ez dira aztertu tresna honen aplikazio koantitatiboan aukerak iharduera sektore jakin batean normalizazio maila aztertzeako orduan, ezta eremu geografiko jakin batean ere. Oraingoz tresna honek baloratzen laguntzen duena zera da: erakundeen abiapuntua eta zenbait iharduketan burutu ondorengo egoera. Zentzu honetan erakundeek beste zerbaitegarako ere erabil dezakete: denbora epe jakin batean zein helburu ezarri nahi diren jakiteko, normalizazio mailarik baxuena duten arloak (faktoreak, Indexplà-ren hitzetan) detektatzen laguntzen baitu.

Indexplà-ren ezaugarri nagusietako bat eta hau oso interesgarria da hiz-

«Indexplà-ren oinarria faktoreka taldekatutako adierazle sistema bat da. Faktore bakoitzak 0 eta 100 arteko balioa du. Bestetik, faktore guztien batezbesteko haztatua (ponderatua) ere atera daiteke, hau da, hizkuntz normalizazio indizea (HNI). Azken balio hori ere 0 eta 100 artekoa da eta erakundearen normalizazio maila orokorra adierazten du. Beraz, horri esker jakin daiteke zenbait erakundek gutxieneko normalizazio maila lortu dutela eta bezeroekin nahiz erabiltzaileekin haiek aukeratutako hizkuntzan aritzeko gaitasuna dutela (60 eta 80 arteko HNIA). Bestetik, lan hizkuntza gisa katalana erabiltzen duten erakundeak ere identifika daitezke (80 eta 100 arteko HNIA)»

kuntz normalizazio teknikarientzat aldaketarekiko duen sentsibilitatea da. Izan ere, tresna honek edozein aurrerapen koantitatibo ikusi eta neurtzeko aukera eskaintzen du, txikiak izan arren. Grafiko bakar batean adierazten da une desberdinetan egindako oharren arteko konparazioa.

Une honetan Indexplà esperimentazio fasean dago gure herrialdeko hainbat erakundetan eta mintegiak tresna hori aztertzen jarraitzen du. Bigarren laukian ikus daiteke zein erakundetan aplikatu den eta kasu bakoitzean atera diren balio edo indizeak.

INDEXPLÀ-REN BARNE EGITURA

Indexplà kalkulu orri gisa aurkezten da (Excel) eta egiten den ohar bakoitzaren orri batean jasotzen da. Erakunde jakin batean une desberdinetan egindako neurketa guztiak lan liburu batean (kalkulu orrien multzoan) bateratuta jasotzen dira erakundearen izenarekin batera.

Indexplà betetzea oso erraza da: nahikoa da adierazle bakoitzari bere balioa ematea, aztergai den erakundearen errealitatea isladatuz. Adierazle guztiek balio numerikoa dute eta erantzunak kasuan kasukoak izango dira. Hizkuntz planifikatzaileak berak aukeratuko du egindako behaketan emaitzen arabera zein balio eman adierazle bakoitzari (aurreikusitako erantzun aukeren arabera) eta berak sartuko du programan. Kontrol sistema bat ere badago, sartu den balioa baliagarria denentz ziurtatzeko.

Adierazleak sei faktoretan taldekatzen dira (ikus 1. laukia). Adierazle bakoitzak oso determinazio maila estua du bere faktorearekin. Halaber, hainbat erlazio identifika daitezke adierazle eta faktore jakin batzuen artean, intentsitate desberdinez bada ere. Tresna honen aukeretako bat, hain zuzen ere, erlazio horiek guztiak jasotzea da, eta beraz, doitasun maila altua lor dezake azken emaitzetan. Esate baterako 1.6 adierazleak (Poltsa, enbalajea, etiketa, prospektua, kartazala edo baliokidea) 1. faktoreari dagokio (irudia eta errotulazioa), eta bien artean lotura argia eta logikoa dago. Baina adierazle horrek laugarren faktorearekin ere harreman estua du (kanpo erabilerako dokumentuak), poltsak, enbalajeak, etiketak eta abar kanpo erabilerako dokumentutzat ere har baitaitezke, nahiz eta ez diren adierazgarrienak.

Mintegiaren lanik zailenetako bat, hain zuzen, adierazle bakoitzak bere faktorearekin eta beste faktoreekin duen harremanaren intentsitatea zehatz-mehatz aztertzea izan zen. Intentsitate hori koantifikatzeko 1etik 9ra doan baremoa erabili da.

Adierazle eta faktoreen arteko hiru harreman maila ezarri dira:

- Pertenentzia harremana (horixe da harremanik estuena);
- Ez pertinenziatzko harremanak, intentsitate ertainekoak,
- Ez pertinenziatzko harremanak, intentsitate baxukoak.

Zazpi, zortzi eta bederatziko puntuazioak lehen kategoria koantifikatze-

ko erabiltzen dira, hau da, adierazle bakoitzak bere faktorearekin duen harremana koantifikatzeko. Sei, bost eta lauak adierazle bakoitzak beste faktoreekin dituen harremanak intentsitate ertainekoak direnean neurtzeko erabili dira. Harreman hori ahulagoa denean, azkenik, bat, bi eta hiruko puntuazioak erabili dira. Eta noski, inolako harremanik ez dagoenean adierazle eta faktore jakin batzuen artean ez dago haztapienik (edo beste hitzetan esanda, zerokoa da).

Beraz, hiru kategoriatan sailkatzeaz gain, kategoria bakoitzaren barneko intentsitatea ere neurtu da. Harremanen intentsitateari buruzko azken erabakia (adierazle bakoitzak faktore bakoitzarekiko duen pisua) mintegikideen arteko kontsentsuaren emaitza izan da.

Horren ondorioz sarrera bikoitzeko matrizea sortu da. Horrek adierazle eta faktoreen arteko harreman posible guztiak eta harreman bakoitzaren intentsitatea erakusten du (ikus 1. laukia).

Hizkuntz normalizazio teknikariak adierazle bakoitzari dagokion balioa sortzen duenean, programak zifra guztiak haztatzen ditu, bakoitzaren pisuaren arabera. Horrela faktore jakin bati dagozkion adierazleen balio haztatuen batura izango da faktore horren balioa. Emaitzen interpretazioa errazagoa izan dadin faktore bakoitzaren balio maximoa 100ean finkatu da, proportzio simple baten bidez.

Erakunde jakin baten hizkuntz normalizazioaren azken balioa lortzeko faktoreak ere haztatu dira, faktore guztiak ez baitute garrantzi berbera. Horrela mintegiak honako pisu hauek eman die faktore hauei azken balorazioa egiteko orduan:

1. Irudia eta errotulazioa: %25
2. Langileen hizkuntz egokitzapena: %15
3. Hizkuntz erabilerazko irizpideak: %20
4. Kanpo erabilerako dokumentazioa: %15
5. Kanpo komunikazioak: %15
6. Barne dokumentazio eta komunikazioak: %10

Aztergai den erakundearen hizkuntz normalizazio indizea, beraz, faktore guztien batezbesteko haztatua izango da.

Indexplà-ren helburua erakundeetan normalizazio planak eta hizkuntz kudeaketa lanen ondorioz gertatutako aldaketak adieraztea da.

Beraz, grafiko bat eskaintzen du lanaren une desberdinetan egindako neurketak grafikoki adierazi ahal izatearren. Grafikoari esker faktore bakoitzaren balioen bilakaera eta normalizazio maila orokorra bat-batean ikus ditzakegu.

«Hona hemen faktore ezberdinak:

1. Irudia eta errotulazioa.
2. Langileen hizkuntz egokitzapena.
3. Hizkuntz erabilerazko irizpideak.
4. Kanpo erabilerako dokumentazioa.
5. Kanpo komunikazioak.
6. Barne dokumentazio eta komunikazioak»

«Indexplà tresna sinplea da, praktikoa, indizeak homogenizatu egiten dituelako, eta horrek berehalako balorazioa eta konparazioa egitea ahalbidetzen duelako, bai planaren une desberdinen arteko konparazioa eta bai erakundeen artekoa ere»

2. Laukia. Indexplà-ren esperientzia pilotoa

Erakundea	Sektorea	Kokapena	HNI
Subdirecció General del Departament de Política Territorial i Obres Públiques	Generalitatea	Bartzelona	81
Associació d'Empresaris d'Hosteleria	Erakunde enpresariala	Tarragona	71
Gremi de Restauració	Erakunde enpresariala	Terrassa	33
Col·legi de Gestors de Catalunya	Erakunde profesionala	Bartzelona	81
Col·legi de Metges de Tarragona	Erakunde profesionala	Tarragona	81
Empresa Progress	Empresariala	Bartzelona	57
Cooperativa Habitatge i Entorn (CCOO)	Empresariala	Bartzelona	77
Ciutat Sanitària i Universitària de Bellvitge	Osasun sektorea	Hospitalet	74
Associació de Veïns Baró de Viver	Elkartea	Bartzelona	29
Club Esportiu Mediterrani	Elkartea	Bartzelona	69
Casal Infantil El Vaixell	Elkartea	Bartzelona	37
Ràdio Ciutat de Badalona	Komunikabideak	Badalona	83

INDEXPLÀ PRAKTIKAN

Jadanik esan dugun bezala, Indexplà-ren ezaugarri nagusietako bat al-daketen aurrean duen sentsibilitatea da. Beraz, oso tresna egokia da hiz-kuntz normalizazio planen aurrerapenak ebaluatzeko, baina aldi berean beste ezaugarri garrantzitsu bat ere badu: oso tresna *motibatzailea* da, orain arte frogatu ezin genituen gauzak datu objektiboen bidez aztertzea ahalbi-detzen baitu. Hizkuntz normalizazio teknikarien eta erakundeetako zu-zendaritza taldeko kideen eta langileen ahaleginak grafikoan argi eta gar-bi adierazten dira: erakundeko hizkuntz aldaketa prozesuan gorakada baten bidez. Ondoren Indexplà-ren aplikazio praktikoaren adibide bat aurkezten dugu alegiazko erakunde batean. lehen behaketa baten ondo-ren abiapuntua finkatu da (ikus 1. grafikoa). Gero katalanaren erabilera-ren gorakada ekarri duten aldaketak erantsi dira.

Adibide honen azterketari esker argi eta garbi ikus eta konpara ditzakegu behaketa bakoitzaren ondoren grafikoan gertatu diren aldaketak. Gogoan izan behar da behaketa bakoitzean bost, sei edo zazpi adierazletan baka-rrik egin direla aldaketak (guztira 34 adierazle daude). Horrek garbi uz-ten du tresna honen sentsibilitate maila altua.

LEHEN BEHAKETA (93/10/23)

Grafikoan faktore bakoitzaren lehen zutabea eta 45eko balioa duen batezbesteko orokorrean adierazten da.

Hasierako egoera

Erakunde honetan ez da arreta gehiegirik ipini komunikazio hizkuntzari buruzko irizpideak definitzeko orduan lehen behaketa honen garaira iritsi arte. Ez da inolako hizkuntz prestakuntzarik sustatu. Idatzizko komunikazioetako asko gaztelaniazkoak edo elebidunak dira, eta ahozko komunikazioak erakundeko solaskideen arabera da.

BIGARREN BEHAKETA (94/10/23)

Grafikoan faktore bakoitzaren bigarren zutabea eta 55eko balioa duen batezbesteko orokorrean adierazten da.

Lehen eta bigarren behaketen artean gertatutako adierazle aldaketak

1.5 Azken publizitate mezua. «Beste hizkuntza bat»etik «elebidun»era igaro da.

1.6 Plastikozko poltsak. «Beste hizkuntza bat»etik «dena katalanez»era igaro da.

4.1 Erakundearen izena duen gutun papera. «Erdi eta erdi»tik «ia dena katalanez»era igaro da.

4.2 Identifikazio zigiluak. «Ia dena beste hizkuntza batean»etik «dena katalanez»era igaro da.

4.3 Funtzionamendu jarraibideak. «Elebidun»etik «ia dena katalanez»era igaro da.

Grafikoan gertatutako aldaketak

Irudi eta errotulazioak 15 puntu egin ditu gora, eta 31ko igoera izan du kanpo erabilerako dokumentazioak.

HIRUGARREN BEHAKETA (95/10/23)

Grafikoan faktore bakoitzaren hirugarren zutabea eta 59ko balioa duen batezbesteko orokorrean adierazten da.

Bigarren eta hirugarren behaketen artean gertatutako adierazle aldaketak.

1.3 Ordutegiaren errotulua. «Erdi eta erdi»tik «dena katalanez»era igaro da.

1.5 Azken publizitate mezua. «Elebidunetik»etik «ia dena katalanez»era igaro da.

2.2 B eskakizunera egokitutako langileen kopuruak %14 egin du gora.

«Oraingoz tresna honek baloratzen laguntzen duena zera da: erakundeen abiapuntua eta zenbait iharduketa burutu ondorengo egoera. Beste zerbaitetarako ere erabil dezakete: denbora epe jakin batean zein helburu ezarri nahi diren jakiteko, normalizazio mailarik baxuena duten arloak detektatzen laguntzen baitu»

«Indexplà kalkulu orri gisa aurkezten da (Excel) eta egiten den ohar bakoitza orri batean jasotzen da. Erakunde jakin batean une desberdinetan egindako neurketa guztiak lan liburu batean (kalkulu orrien multzoan) bateratuta jasotzen dira erakundearen izenarekin batera»

2.3 C eskakizunera egokitutako langileen kopuruak %13 egin du gora.

3.2 a) Maila egokia ez dutenen %30 katalana ikasten ari dira.


3.2 b) Prestakuntza hori sustatu egiten da dirulaguntzaz eta denbora osoz.

4.1 Erakundearen izena duen gutun papera. «Ia dena katalanez»etik «dena katalanez»era igaro da.

Grafikoan gertatutako aldaketak

Hizkuntz egokitzapenak 9 puntu igo ditu. Kontuan izan behar da 100 pertsona dituen erakunde batean erdiek ez dituztela beren lanposturako behar dituzten hizkuntz ezagutzak eta horietatik 15ek bakarrik ikasten dutela eta 15 horietatik 12 baino ez direla egokitzen eskakizunetara (8 B eskakizunera eta 4 C eskakizunera). Horixe da, hain zuzen, faktore horren 9 puntuko igoerak adierazten duen aldaketa.

1. grafikoa. Lau behaketen arteko konparazioa.



LAUGARREN BEHAKETA (96/10/23)

Grafikoan faktore bakoitzaren laugarren zutabea eta 68ko balioa duen batezbesteko orokorrean adierazten da.

Hirugarren eta laugarren behaketen artean gertatutako adierazle aldaketak.

Aldaketak sei adierazletan gertatu dira: bat irudi eta errotulazio sektorean, hiru erabilpen irizpideetan eta bi kanpo komunikazioen sektorean.

1.1 Izen soziala. «Erdi eta erdi»tik «dena katalanez»era igaro da.

3.1 Pertsona bat kontratatzen da eta katalana jakitea meritutzat hartzen da

3.4 Publikoarekiko harremanetarako irizpide esplizituak. «Ez dago irizpiderik»etik «irizpidea dago»ra igaro da.

3.7 Hizkuntz autonomiazko hiru elementu. «Ez dago elementurik»etik «badago»ra igaro da.

5.4 Idatzizko komunikazioak instituzioekin. %55etik %90ra igaro dira.

5.5 Idatzizko komunikazioak bezeroekin. %60tik %80ra igaro dira.

Grafikoan gertatutako aldaketak

Irudi eta errotulazioak 9 puntu egin du gora, erabilpen irizpideetan 18 puntuko igoera gertatu da, eta 15 puntukoa kanpo komunikazioetan. Igoera gehienak behatu diren aldaketen ondorio zuzenak dira.

Langileen hizkuntz egokitzapen faktorean ere zazpi puntuko igoera gertatu da nahiz eta ez den inongo aldaketarik egin faktore horretan eragin zuzena duten adierazleetan. Horren arrazoia honako hau da: erakundeak hartutako zenbait irizpidek zeharkako eragina dutela hizkuntz egokitzapenaren faktorean (esate baterako langile berriak kontratatzerakoan katalana jakitea meritu gisa hartzea, nahiz eta hori beste faktore batean sartzen den: erabilpen irizpideen faktorean alegia).

Esan beharra dago adierazle bakoitzean sartutako aldaketak ez direla aldaketa drastikoak, progresiboak baizik, eta kasu batzuetan portzentaia-aren igoera txiki bat eragiten duten bezala, beste kasu batzuetan erabilera-aren gorakada txiki bat eragiten dutela. Hala ere, grafikoan adierazten diren aldaketak nahiko nabarmenak dira.

Indexplà-ri edo, oro har, normalizazio planen analisi eta ebaluazio tresnei buruzko iradokizunik badituzu, helbide honetara bidal ditzakezu Consorci per a la Normalització Lingüística, Direcció Tècnica (Indexplà), carrer de Pau Claris, 162, 1r, 08037 Bartzelona; edo bestela beste honetara: Direcció General de Política Lingüística, Comissió de Programació i Coordinació, carrer de Mallorca, 272, 8è, 08037 Bartzelona.

«Oso tresna egokia da hizkuntz normalizazio planen aurrerapenak ebaluatzeko, baina aldi berean beste ezaugarri garrantzitsu bat ere badu: oso tresna motibatzailea da, orain arte frogatu ezin genituen gauzak datu objektiboen bidez aztertzea ahalbidetzen baitu»